DONOSTIA. Unibertsitateko lan-kide eta lagun batzuek gorazarre egin zioten atzo Ibon Sarasola Euskal Herriko Unibertsitateko ikertzaileari. Zenbait lagun hitzaldien ostean, Sarasolak berak jardun zuen, eta hiztegiaren baten ahotan oso ortodoxo ez diren ideia hauek jaurti zituen: «Nire 'Euskara batuaren ajeak' liburuarekin ez nago batere gustura. Zuzentasuna proposatu dugu eta ez dugu asmatu. Erabilerak da garrantzitsua, erabiltzen den hitza, alegia. Euskara gaztelaniaren menpe zeratu [garatu?] behar dugu. Zuk esan dezakezu delako hitz hori batasunaren kontra doala, baina inork kasorik egiten ez badizu? Orduan zer egin behar duzu? Negar? Batasuna egin behar dugu, bai, baina gehien egiten diren hitzekin. Garai batean gutxi ginen eta batek esaten bazuen 'krokodilo' zela forma zuzena, denek kaso egiten zioten segituan, baina gaur ez da hala gertatzen. Zer egin behar dugu? Ba amore eman eta salbatu daitekeena salbatu. Erabilerak agintzen du eta men egin behar dugu. Horregatik dira hain garrantzitsuak corpusak. 'Domeinu' hitza disparate bat da, baina haren alde egingo dut, erabiltzen baldin bada. Gora 'emendakin!' Gora 'domeinu!' Gora 'likidezia!'».

Hitzaldian errepaso txiki bat eman zion bizitzari. «Gogoratzen naiz, etxean, hamalau-hamabost urte nituela, eta anaiarekin gaztelaniaz hizketan. Orduan, aitaren ahotsa: 'ondo hitz egin!'». Elbira Zipitriarekin euskaltzaletu omen zen:

«Ikaskide batek, Arrazolatar batek, esan zidan larunbatetan harekin biltzen zirela eta ni ere joaten hasi nintzen. 'Garoa' irakurtzen genuen». Alfabetatu, berriz, aitak esanda. «Hura, gerra baino lehen alfabetatu zen. Ni unibertsitatean nengoen, ingeniarietako 'curso-puente' bat egiten, eta lan handirik ez neukanez, aitak esan zidan idazten has-teko. Eta halaxe hasi nintzen».

Gero Zeruko Argia aldizkarian hasi zen, Ramon Saizarbitoriarekin batera 'Gazte naiz' orrialdea taxutzen. Eta handik denbora gutxira, Lur argitaletxea, Saizarbitoria eta Arantxa Urretabizkaiaekin. «Ezin da esan bizitzako etapa onena izan zenik, baina ona izan zen, bai. Aktibismo kulturala egiten genuen. Gazteak izanik, gai ginen goizeko 4rak arte egoteko liburuetak probak zuzentzen. Hilean liburu bat ateratzen bainenuen».

Literatura piska bat ere egin zuen: poema batzuk, ipuin bat... «Gero konturatzen zara ez duzula literaturarako gaitasun berezirik eta ikerketan hasi nintzen. Lur-erako euskal literaturaren historia bat prestatzen

ESALDIAK

Ibon Sarasola
EHU ikertzailea

«Lur-en garaian, gazteak izanik, gai ginen goizeko 4rak arte lanean egoteko»

Miren Azkarate
Eusko Jaurilaitzako Bozeromalea

«Ez gara kontziente Egungo Euskararen Hiztegiaren zer altxor daukagun»

hasi nintzen. Datuz betea zegoen, mamotreto bat zen, eta horrela ezin zen publikatu. Bertan behera utzi nuen. Depresioa sartu zitzaidan. Aur-reko guztia ahaztu eta gai berari bu-ruz entsegu moduko bat idatzi nuen, Koldo Mitxelenari gustatu zitzaio-na. Iruditu zitzaion banekiela kaos bat organizatzen eta bere hiztegiaren laguntzeko deitu zidan. Erakutsi zi-dan bere fitxak, bere kaxa haiek, eta nik: 'hau al da asuntua?'. Eta berak: 'bai, hau da kontua'. Gegiako ez nuen 'asuntua' hitza erabili».

Egungo Euskararen Hiztegia

Atzoko ekitaldian, aurrena Pello Sa-laburuk hartu zuen hitza. Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Institutuko zuzendaria da -Sarasola-ren lankidea- eta gorazarre-eki-taldi honen antolatzaileetako bat. Ondoren, Patxi Goenagak jardun zuen: «Patxi Altunak behin baino gehiagotan agertu zidan kezka: nor izango zen Koldo Mitxelenaren lekukoa hartuko zuena. Beldur zen Bizkaitik etorriko ote zen, eta guz-tiok dakigun izen hori aipatu zuen, orain esango ez dudana. Nik, berriz, lasai egoteko, Ibon Sarasola izango zela. Eta halaxe gertatu zen. Mitxe-lenaren oinordekorik baldin bada-go, Ibon da». Saioaren bukaera alde-ra, Goenagak eskerrak eman zion Sarasolari Euskaltzaindiko Grama-tika Batzordearen krisialdian soli-daritetea ager-tzeagatik.

Miren Azkaratek, berriz, esan zuen Orotariko Euskal Hiztegiak «mugarri bat markatu» zuela, baina Egungo Euskararen Hiztegia aurreko hura gaintitzen ari dela. «Ez gara kon-tziente hemen zer altxor dauka-gun. Egungo euskararen argazki pri-merakoa daukagu hor». Euskal He-rriko Unibertsitateko Euskara Ins-titutua ari da hiztegi hori presta-tzen sarean, eta gaur egun letra hauek daude kontsultarako: C, D, F, G, H, I, J, K, L, M, N, Ñ, O, P, Q, R eta S.

Gero Blanca Urgell mintzatu zen. Hasteko, esan zuen Sarasola irakas-le izan zuela Gasteizen Euskal Filo-logia ikasten hasi zenean. «Ibonen bi esaldi gogoangarri errepikatu izan diet nik askotan ikasleei: 'Lo mejor es enemigo de lo bueno' eta 'Haga usted lo que pueda'. Voltairerengan-dik atera zuen lehenbiziko esaldi hori, 'Candido' euskaratu zuenean. Ibonek zabaldu zituen nire euskal-dun belarriak. Filologia arloan nire gurasoa izan da».



:: IGOR AIZPURU

EL REY PASA CONSULTA EN VITORIA

El rey Juan Carlos visitó ayer Vitoria para someterse a una revisión practicada por un médico y amigo, el traumatólogo Mikel Sánchez, en el hospital Vithas San José, donde permaneció unas tres horas. Sánchez es un especialista prestigioso que ha tratado a conocidos deportistas como Rafa Nadal y fue uno de los comensales con los que el monarca almorzó el pasado sábado en San Sebastián.

BOS Bilbao Orkestra Sinfonikoa

Ganberako musika
Música de cámara
2014-2015



Concierto
7.
Kontzertua

Obras de

B. Müller, F. Doppler, R. Tillmetz,
F. Doppler / A. Zamara
BOSen ganbera taldea
Grupo de cámara BOS

J.F. Fasch: *Sontata en Sol menor para dos oboes, fagot y continuo*
J.D. Zelenka: *Sonata nº 4 en Sol menor*
BOSen ganbera taldea
Grupo de cámara BOS

Palacio Euskalduna • Sala Teatro
MARTXOA/MARZO 16 • ordutegia/horario: 19:30
T. 94 40 35 205 • www.bilbaorkestra.com

Stanley Clarke y Joe Lovano actuarán en Getxo Jazz

GETXO – La calidad contrastada y la diversidad estilística marcan los primeros nombres de las figuras que liderarán este año Getxo Jazz, el primero de los festivales vascos del género, que se celebrará del 1 al 5 de julio. Nombres clásicos y veteranos como el bajista Stanley Clarke y el saxofonista Joe Lovano se estarán acompañados por el trompetista Avishai Cohen, “uno de los más destacados del panorama actual”, según la organización. Avishai Cohen, que abrirá la programación estelar, es uno de los trompetistas más destacados del jazz actual. El israelí, que actuará en formato de trío junto a Omer Avital (contrabajo) y Nasheet Waits (batería), se dio a conocer como intérprete de géneros como el bebop y el postbop, aunque “ha ido tomando nuevas direcciones como improvisador y compositor”. En Getxo, Cohen presentará su último disco, *Dark nights*, que alterna “lirismo intimista con virtuosismo electrizante”. – **A. Portero**

La huella pictórica de Menchu Gal llega a Gasteiz

GASTEIZ – El estilo único y personalista de la pintora Menchu Gal, fallecida hace ocho años, llegó ayer a Gasteiz con una exposición que reúne 73 de sus cuadros llenos de color que representan paisajes, bodegones, interiores y retratos que reflejan el “alma” de sus protagonistas. Marisa Oropeza, la comisaria de la muestra *Menchu Gal, imágenes de una vida*, que se presenta en la sala Fundación Caja Vital, destacó de esta pintora nacida en Irun en 1919 el espíritu y la esencia que captó de los personajes que retrató, principalmente mujeres representadas “con fuerza y elegancia”.

Gal fue la primera mujer que obtuvo el Premio Nacional de Pintura, en 1959. Empezó sus estudios pictóricos a los siete años, a los trece se instaló en París y luego regresó a la Escuela de Bellas Artes de San Fernando a Madrid. Pero la Guerra Civil le obligó a refugiarse en Francia. Allí se dejó influir por los movimientos creativos de esos años pero sin abandonar su estilo único. - *Efe*



La UPV/EHU homenajea a Ibon Sarasola

La UPV/EHU rindi6 ayer homenaje al profesor Ibon Sarasola, a quien se le hizo entrega de un ejemplar del libro que el Servicio Editorial de la Universidad Vasca ha publicado recientemente sobre su figura. La UPV/EHU quiso agradecer de esta forma la “inmensa proyecci6n

académica" de Sarasola, de quien remarcaron su "trabajo sin descanso" en el centro universitario. En la publicación de Pello Salaburu y Beatriz Fernández, han participado 71 autores y catorce entidades tanto estatales como internacionales. *Foto: Javi Colmenero*



Euskal hiztegiaren ingeniaria

Ibon Sarasola hizkuntzalaria omendu dute, hizteigintzan eta literaturgintzan jorratutako bidea eskertzeko asmoz • 'Ibon Sarasola, Gorazarre' liburua kaleratu dute, 71 egileren artean taxutua

Saioa Alkaiza Guallar Donostia

Hamabost urte zituen garaiekin oroitu da Ibon Sarasola. Etxean, anaiarekin, gaztelera urrian izandako lehenengo elkarrizketekin. «Ondo hitz egin!», esan zien orduan aitak semei. Eta iltzatuta geratu zitzaion unea: euskaraz egin behar zutela esan nahi baitzien. Horrek hizkuntzarekiko sena piztu zion. Eta urteen joan-etorriarekin, gogoa hauspotu baino ez zaio egin. Literaturan aritua, hizteigintzan trebatua, itzultzaile zaildua... Aldeaniztuna da Sarasola. Ertz askotarikoa. Horregatik, atzo ibilbide oso horri gorazarrere egin nahi izan zioten EHUko kideek Donostian egindako omenaldian. Haren urratsak gogora ekartzeaz gain, *Ibon sasarola, Gorazarre. Homenatge, Homenaje* liburua ere aurkeztu zuten, 71 egileren artean osatua eta Beatrik Fernandezek eta Pello Salaburuk atondua.

Orotariko Euskal Hiztegia eta Egungo Euskararen Hiztegia. Horiek Sarasolaren sorkuntza kutunak. «Historiarako geratuko diren bi lerro», Pello Salaburu irakaslearen iritziz. «Berari esker, euskarak inoiz izan duen hiztegi aberatsena dugu».

Haren obra, baina, hori baino askoz gehiago ere bada. Ez da makala gero ingeniari eta hizkuntzalariak kaleratutako lanen zerrenda: poesia eta eleberrien arloan, *Poemagintza* eta *Jon eta Ane zigarro bat erretzen*, esaterako; eta hizkuntzalaritzan, berriz, *Euskaratuaren ajeak*, *Euskal literaturaren gidaliburua*, *Euskal lite-*



Hizkuntzalaritzan egindako ibilbide oparoarengatik omendu dute Ibon Sarasola. JON URBE / ARGAZKI PRESS



Orotariko Euskal Hiztegia eta Egungo Euskararen Hiztegia historiarako geratuko diren bi lerro dira»

Pello Salaburu
EHUko irakasle eta liburuaren egilea

ratura numerotan eta Euskal literaturaren historia, besteak beste.

Dena dela, euskarari eskainitako lana nabarmendu zuten, batez ere, ekitaldian. Pasadizo baten bidez harilkatu zituen gogoetak Go-



Behartuta baino erretiroa hartuko ez duen alegiazko kronopio honek auskalo zer ekarriko digun»

Josu Landa
Idazlea

enagak. Patxi Altuna euskaltzainak kezka omen zuen Koldo Mitxelenaren lekukoa nork hartuko. Goenagak, berriz, argi eta garbi ikusten zuen: Sarasola bera izango zen. Atzo, harro oroitu zen



Erabilerak agintzen du. Kontua batasuna da: Gora 'emendatu', gora 'domeinu' eta gora 'likidezia'!»

Ibon Sarasola
Hizkuntzalaria

anekdotarekin, orduan begitandutakoa bete dela sinetsirik: «Gaur, Mitxelenaren oinordekorik bada, berau da».

Miren Azkarate euskaltzainak ere goraipatu zuen omendutako-

ak egindakoa. «Orotariko Hiztegitik aurrera hiztegiak ez dira berdinak izan, eta Egungo Euskararen Hiztegitik aurrera ez dira berdinak izango». Egungo Euskararen Hiztegia sarean besterik ez dago. Bide beretik, euskal lexikoren «altzorra» biltzea eskertu zion.

Ergatibotasunaren maisu

«Zenbat horrelako hiztegi ez ote dira geldiarazi edo bertan behera utzi?». Galdara airean utzi zuen Blanca Urgell irakasleak. Eta Sarasolak zailtasunen aurka aurrera egin duela oroitarazi. Beñat Oihartzabal euskaltzainak, berriz, *Iparraldeko ondarea Ibon Sarasolaren lanetan* mintzaldia eskaini zuen, eta hizkuntzalariak mugaz bi aldeetako hizkuntz batasunaren alde landutakoa azaldu zuen. «Hastapenean euskara batu hori Hegoaldean moldatua izan bada, gero euskara batu hori bortxarik gabe, kalapitarik gabe, onartu dute Iparraldeko euskaldunek, ikusi baitute beren ondarea horretan izaten zela».

Eta beste hari mutur bati egin zion tira Itziar Laka irakasleak: gramatikari. Ergatibonatasunaren inguruan Sarasolak jositako ikerketa hartu zuen mintzagaitzat. «Ibonen hipotesia ergatibotasun morfologikoaren lehenengo aitzindaria da».

Bukaera aldean, Josu Landa idazleak hartu zuen hitza, Sarasolak itzuli berri duen Julio Cortazarren obra baliatuz, omendutakoren ibilbidea kronopioen izaerarekin alderatu zuen. «Euskal kronopiorik existituko balitz, behar-

2=1 kupoiak

AISIA ISLARES
Hs SPA **

Islares auzoa
Islares (Kantabria)
Tel.: 942-86 2112
www.aisiahoteles.com

SASOIAN JARTZEKO ZIRKUITUA
2=1 kupoa

IZEN-ABIZENAK
HARPIDEDUN KODEA
ERABILITAKO EGUNA

Batek ordaindu,
eta bigarrenak doan!

ARGITARATZE EGUNA: 2015-03-14
ERABILITZEKO EPEA: hilabete

AISIA DEBA
HOTEL TALASOTERAPIA ***

Kresala talasoterapia
Markiegi kalea, 6 - Deba
Tel.: 943-60 80 52
www.aisiahoteles.com

SASOIAN JARTZEKO ZIRKUITUA
2=1 kupoa

IZEN-ABIZENAK
HARPIDEDUN KODEA
ERABILITAKO EGUNA

Batek ordaindu
eta bigarrenak doan!

ARGITARATZE EGUNA: 2015-03-14
ERABILITZEKO EPEA: hilabete

Bezeroari kasu egiteko ordutegia: 08:30etik 16:00etara 943-30 43 45 telefonoan

berria·mundua·euskarari·emana

bada, kronopio horrek gaztetan *Poemagintza* izeneko poema liburua argitaratuko zukeen. Eta garai bertsuan, apika, Voltaireren *Kandido* itzuliko zuen, Franco hiltzeko hiru urte falta zirelarik».

Euskal kronopiorik balego

Hiztegiak taxutzeko prozesua ere izan zuen hizketagai: «Kronopio hipotetiko horrek euskal literaturaren historia idatzi ondoren, sozialak eta bestelakok, euskal literatura numeroetara ere eraman nahi izan zuen, beti oso harro egon izan baita inoiz ogibide izan ez duen *ingeniero*, *ingineru* edo *ingeniari* formazioaz eta izaeraz. Horregatik ere, agian, 1980an hizkuntzalaritza konputazionalaren bidea sortu zuen gurean».

Lehenagoaz gogoratzeaz gain, egungoak ere aipatu zituen: «Delako kronopioak 67 urte zituenean euskararen akademian zituen ardurak eta lanak utzi egin zituen. Dimititu egin zuen. Gazte errebelde bati egokiagoak litzazkiokeen formak eta hitzak erabiliz. Kronopioak ezin geldirik egon. Itzulpenak egiteari lotu zitzaion, ostera». Erradiografia marraztu zuen. «Behartuta baizik erretiroa hartuko ez duen alegiazko kronopio honek auskalo zer ekarriko digun etorkizunean».

Sarasolak hitz egin zuen azkena, gogoeta moduan. «Erabilerak agintzen du, eta men egin behar diogu». Aldarria eta umorea uztartu zituen. «Kontua batasuna da: gora *emendatu*, gora *domeinu*, gora *likidezia!*», esan zuen, gatazka sortzen dioten hiru euskal hitzi erreferentzia eginaz. Eta ildo berari eutsi zion solasari, garai bateko erabakiak ardatz: «Imajintzen duzue gaur egun inork *krokodilo* proposatzea? Inork ez lioke kasu egingo!». Bukatzeko, batasunaren alde mintzatu zen: «Ni aurrera aterako diren gauzen alde nago. Betoz corpusak! Eta batasuna saia gaitzen egiten gehien erabiltzen diren hitzen bidez».



Inazio Tolosak eta Anabel Arraizak jokatzaren bitartean protagonisten rola *Zu gabe* antzezlanean. ATEA TEATRO

Bizitzaren ilunak, aurrez aurre

‘Zu gabe’ lana estreinatuko du gaur Atea Teatrok; bizitzaren inguruan gogoeta egitera darama

Ainhoa Sarasola

Hogei urte igaro dira azken aldiz elkar ikusi zutenetik, azkenekoz elkarrekin hitz egin zutenetik. Aurrez aurre daude berriro biak orain, elkarrengandik banandurik hogei urte eta hamaika bizi-pen tartean dituztela. Eta hizketan hasi dira, bizitzaz, heriotzaz, familia arteko harremanez, gaztaroko ametsaz eta horien bilakera... «Bizitzari buruzko gogoeta bat» baita, azken batean, *Zu gabe* antzezlanak proposatzen duena, bi pertsonaren arteko harremana oinarri hartuta. Alex Telok idatzi eta zuzendu du lana. Anabel Arraiza eta Inazio Tolosa protagonisten rolean direla, gaur estreinatuko dute obra, Lasarte-Oriako (Gipuzkoa) Manuel Lekuona kultur etxean, 19:00etan.

«Berdin dio zer adin duzun edo zer pentsamendu, bizitzaren inguruko hausnarketa bat planteatzeko du antzezlanak», azaldu du Anabel Arraiza aktoreak. Izan ere, berak jokatzeko duen pertsonaia- ren, Mariren, eta Inazio Tolosak jokatzeko duenaren artean zer harreman dagoen ez du jakingo ikusleak lehen unean, ez eta nor diren, non dauden edo zer gertatu zaien ere; istorioak aurrera egin ahala joango dira askatzen korapilo horiek. Bien arteko elkarriketak eta Arraizaren bakarrikzeta dira lanaren oinarria, hiru pasartetan banatuak: elkartzen direnekoa lehena, Marik atzera egiten dueneko hurrengoa, eta Arraizaren esanetan «obraren mamia jasotzen duena» azkena, korapiloak askatzen direnekoa.

Protagonista bakoitza belau-

naldi batekoa da; hainbat bizipen partekatutakoak; beste asko, ez. Baina, gainera, hogei urtean bakoitzak bere bilakaera izan du. «Bizitzaren eta sortzen dituzun harremanen poderioz, ardatz eta interesak ezberdinak dira, beste dinamika batzuk sortzen dira; hori bizitza bera da, eta hori islatzen da». Gatazka iturri ere izango dira horiek zenbaitetan, batez ere Mari bere bizitzarekin zer egingo duen erabakitzeko puntuan dagoelako.

Une gogorak eta hunkigarriak tartekatzen ditu antzezlanak, baina sentimenduak eragiteaz gain, gogoeta egitera ere eraman nahi dute ikuslea. «Berdin dio adinak, gizon edo emakume izan, ezkondua edo ezkongabea, berdin dio zein egoeratan zauden... Momenturen batean obran zure egoera

islatuta ikusiko duzu, edozeini gerta dakiokkeen zerbait kontatzen baita, eta horrek gogoeta egitera eraman zaitu».

Konpainia berria

2007tik zebilkion antzezlanaren ideia buruan Alex Tellori, baina iaz idatzi zuen gidoia, eta Atea Teatro bere konpainia berriaren bidez taularatuko du orain. Naturalismoaren ildotik garatzen da antzezlan, eta, eszenografia soila badi ere, giro berezia sortuko du Xabier Lozanoren argiztapenek, Mikel Laboaren musikak eta Jose Luis Zumetaren zenbait artelaneak.

Gaurkoaz gain, *Zu gabe* antzezlanaren beste bost saio dauzkate hitzartuta apirila bitarte: Tolosan, Antzuolan, Zarautzen, Usurbilen eta Zizurkilaren eskainiko dute, oraingoz, lana.

MOZTU eta erabili zure berrialagun harpidedun txartelarekin batera*

IRUÑEKO GOLEM ZINEMAK

2=1

golem

ZINEMA SARRERAK

2=1 kupaia*

Izen abizenak

berrialagun harpidedun kodea

Erabiltzeko eguna

Batek ordaindu eta bigarrenak doan!

ARGITARATZE EGUNA: 2015-03-14

ERABILTZEKO EPEA: hilabete

* Ezin da beste eskaintza batzuetan erabili, Astelehenetik ostiralera, jaiegunetan izan ezik.

DONOSTIAKO BRETXA ZINEMAK

OCINE

LA BRETXA

ZINEMA SARRERAK

merkeago*

IZEN-ABIZENAK

HARPIDEDUN KODEA

ERABILTZEKO EGUNA

Bi laguntzako txartela, merkeago!

ARGITARATZE EGUNA: 2015-03-14

ERABILTZEKO EPEA: hilabete

* Ikuslearen eguneko prezioa, astelehenetik ostiralera, jaiegunetan izan ezik.

Bezeroari kasu egiteko ordutegia: 08:30etik 16:00etara 943-30 43 45 telefonoan

berria-mundua-euskarari-emana

accesso

12 / 19



INTERNET

SELECCIÓN DE LAS NOTICIAS DE SU INTERÉS



Fecha	Titular/Medio	Pág.	Docs.
13/03/15	Ibon Sarasola EHUko irakaslea omenduko dute ostiral honetan adiskideek eta irakaskideek / Europapress.es	15	1
13/03/15	Ibon Sarasola EHUko irakaslea omenduko dute gaur Donostian / Deia.com	16	1
13/03/15	Ibon Sarasolaren mezua: benetan erabiltzen den hitzak du lehentasuna / Diario Vasco	17	1
14/03/15	Homenaje a Sarasola / noticiasdegipuzkoa.com	18	1
14/03/15	La UPV/EHU homenajea a Ibon Sarasola / Deia.com	19	1

Ibon Sarasola EHUko irakaslea omenduko dute ostiral honetan adiskideek eta irakaskideek

Viernes, 13 de marzo de 2015

Ibon Sarasola EHUko irakaslea omenduko dute ostiral honetan adiskideek eta irakaskideek

DONOSTIA, 13 Mar. (EUROPA PRESS) - Ibon Sarasola Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) irakasleari ohorezko ekitaldi akademikoa egingo diote adiskideek eta irakaskideek ostiral honetan, martxoaren 13ean, Gipuzkoako campuseko Carlos Santamaria zentroko Antonio Beristain aretoan, Donostian. EHUko iturriek jakinarazi dutenez, ekitaldian, EHUko Argitalpen Zerbitzuak kaleratu berri duen liburua emango zaio Sarasolari: Beatriz Fernández eta Pello Salaburu irakasleek paratu duten "2015 ...

Leer mas: <http://www.europapress.es/euskera/noticia-ibon-sarasola-ehuko-irakaslea-omenduko-dute-ostiral-honetan-adiskideek-eta-irakaskideek-20150313100735.html>

(c) 2015 Europa Press. Está expresamente prohibida la redistribución y la redifusión de este contenido sin su previo y expreso consentimiento.

Ibon Sarasola EHUko irakaslea omenduko dute gaur Donostian

Viernes, 13 de marzo de 2015

hezkuntza - Ibon Sarasola Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) irakasleari ohorezko ekitaldi akademikoa egingo diote gaur goizean adiskide eta irakaskideek, Gipuzkoako campuseko Carlos Santamaria zentroan, Donostian. EHUK jakinarazi duenez, kaleratu berri den 2015. Ibon Sarasola, Gorazarre. Homenatge, Homenaje. Bilbo: UPV/EHU liburua jasoko du Sarasolak omenaldian. Lan honetan 71 egilek eta 14 erakundek parte hartu dute. - Europa Press

Ibon Sarasolaren mezua: benetan erabiltzen den hitzak du lehentasuna

Viernes, 13 de marzo de 2015

Euskal Herriko Unibertsitateko lankide eta lagun batzuek gorazarre egin diote Ibon Sarasola Euskal Herriko Unibertsitateko ikertzaileari. Zenbait lagunen hitzaldien ostean, Sarasolak berak jardun du, eta hiztegi gile baten ahotan oso ortodoxo ez diren ideia hauek jaurti zituen: «Nire Euskara batuaren ajeak liburuarekin ez nago batere gustura. Zuzentasuna proposatu dugu eta ez dugu asmatu. Erabilera da garran-tzitsuena, erabiltzen den hitza, alegia. Euskara gaztelaniaren menpe zeratu [garatu?] behar dugu. Zuk esan dezakezu delako hitz hori batasunaren kontra doala, baina inork kasorik egiten ez badizu? Orduan zer egin behar duzu? Negar? Batasuna egin behar dugu, bai, baina gehien egiten diren hitzekin. Garai batean gutxi ginen eta batek esaten bazuen krokodilo zela forma zuzena, denek kaso egiten zioten segituan, baina gaur ez da hala gertatzen. Zer egin behar dugu? Ba amore eman eta salbatu daitekeena salbatu. Erabilerak agintzen du eta men egin behar dugu. Horregatik dira hain garrantzitsuak corpusak. Domeinu hitza disparate bat da, baina haren alde egingo dut, erabiltzen baldin bada. Gora emendakin! Gora domeinu! Gora likidezia!». Omenaldi-ekitaldian, aurrena Pello Salaburuk hartu du hitza. Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Institutuko zuzendaria da Sarasolaren lankidea eta gorazarre honen antolatzaileetako bat. Ondoren, Patxi Goenagak jardun du: «Patxi Altunak behin baino gehiagotan agertu zidan kezka: nor izango zen Koldo Mitxelenaren lekukoa hartuko zuena. Beldur zen Bizkaitik etorriko ote zen, eta guztiok dakigun izen hori aipatu zuen, orain esango ez dudana. Nik, berriz, lasai egoteko, Ibon Sarasola izango zela. Eta halaxe gertatu zen. Mitxelenaren oinordekorik baldin badago, Ibon da». Saioaren bukaera aldera, Goenagak eskerrak eman dio Sarasolari Euskaltzaindiko Gramatika Batzordearen krisialdian solidaritatea agertzeagatik. Miren Azkaratek, berriz, adierazi du Orotariko Euskal Hiztegiak «mugarri bat markatu» zuela, baina Egungo Euskararen Hiztegia aurreko hura gainditzen ari dela. «Ez gara kontziente hemen zer altxor daukagun. Egungo euskararen argazki primerakoa daukagu hor». Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Institutua ari da hiztegi hori presta-tzen sarean, eta gaur egun letra hauek daude kontsultarako: _C, D, F, G, H, I, J, K, L, M, N, Ñ, O, P, Q, R eta S. Blanca Urgellek, hasteko, esan du Sarasola irakasle izan zuela Gasteizen Euskal Filologia ikasten hasi zenean. «Ibonen bi esaldi gogoangarri errepikatu izan diet nik askotan ikasleei: Lo mejor es enemigo de lo bueno eta Haga usted lo que pueda. Voltairerengandik atera zuen lehenbiziko esaldi hori, Candido euskaratu zuenean. Ibonek zabaldu zituen nire euskaldun belarriak. Filologia arloan nire gurasoa izan da». Beñat Oihartzabalek, berriz: «Euskara batu hori, arazorik gabe, kalapitarik gabe onartu dute Iparraldekoek. Ni lekuko naiz». Josu Landak ere jardun du. Informatika arloa zaindu izan du Euskara Institutuan, eta oso bestelako hitzaldia egin du. Kronopioekin lotu du Sarasola, duela gutxi Cortazarren Historias de cronopios y de famas euskaratutakoa baita. Landak gogorarazi du Sarasola gurean «hizkuntzalaritza konputazionalaren aitzindaria» izan zela, konputagailuek «txartel zulatuak zituzten garaian». Lo Más lo más 5

Homenaje a Sarasola

Sábado, 14 de marzo de 2015

LA UPV/EHU rindió ayer homenaje al profesor Ibon Sarasola, a quien se le hizo entrega de un ejemplar del libro que el Servicio Editorial de la Universidad Vasca ha publicado recientemente sobre su figura. La UPV quiso agradecer de esta forma la "inmensa proyección académica" de Sarasola, de quien remarcaron su "trabajo sin descanso" en el centro universitario.

La UPV/EHU homenajea a Ibon Sarasola

Sábado, 14 de marzo de 2015

La UPV/EHU rindió ayer homenaje al profesor Ibon Sarasola, a quien se le hizo entrega de un ejemplar del libro que el Servicio Editorial de la Universidad Vasca ha publicado recientemente sobre su figura. La UPV/EHU quiso agradecer de esta forma la "inmensa proyección académica" de Sarasola, de quien remarcaron su "trabajo sin descanso" en el centro universitario. En la publicación de Pello Salaburu y Beatriz Fernández, han participado 71 autores y catorce entidades tanto estatales como internacionales. Foto: Javi Colmenero